

Zifra bateko zatitzallea duten zatiketak Erabilpena eta berrikusketa

➤ Ebatzi.

- Larraitzek bi argazki-erreportaje egin ditu: bat 120 argazkikoa, eta bestea, 74 argazkikoa. Argazkiak 2 Cdtan gorde ditu, zati berdinetan. Zenbat argazki gorde ditu CD bakoitzean?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Landerrek 1.240 kilo laranja bildu ditu, eta haren lagun Gorkak, 125 kilo gutxiago Landerrek baino. Laranja guztiak 5 atoitari banatu dituzte, zati berdinetan. Zenbat kilo sartu dituzte atoi bakoitzean?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Kafetegi batean, irabiatu hauek dituzte:



- Mikelek zenbait irabiatu txiki eta irabiatu ertain bat erosi ditu 11 €-an. Zenbat irabiatu txiki erosi ditu?


Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Lau lagunek 4 irabiatu handi eta 2 txiki eskatu dituzte. Guztiak berdindu ordaindu dute. Zenbat ordaindu du bakoitzak?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

➤ Kalkulatu distantziak eta osatu eskema zure koadernoan. Ondoren, ebatzi.

- A-tik C-ra arteko distantzia 120 km-koa da.
- A-tik B-ra arteko distantzia A-tik C-ra artekoaren erdia da.
- A-tik E-ra arteko distantzia A-tik C-ra artekoaren herena da.
- C-tik D-ra arteko distantzia A-tik C-ra artekoaren laurdena da.



$$A-C = 120 \text{ km}$$

$$A-B = \text{_____ km}$$

$$A-E = \text{_____ km}$$

$$C-D = \text{_____ km}$$

- Egunero, autobus bat D hiritik irteten da eta A hirira joaten da. Zenbat kilometro egiten ditu autobus horrek astebetean?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

Jarduerak antolatzea

Herriko jaietan, lasterketa hauek antolatu dituzte:



➤ Behatu irudiari, irakurri eta kalkulatu.

- Besotan hartuta egin beharreko lasterketan, 21 parte-hartzaile daude. Zenbat talde dira?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Errelebo-lasterketarako, 23 pertsonak eman dute izena. Talde bakoitzak 4 kide izan behar ditu. Zenbat talde osa daitezke?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

Beste zenbat pertsonak eman behar dute izena, beste talde bat osatzeko? _____ pertsonak.

- Har al dezakete parte 16 pertsonak hankak lotuta egin beharreko lasterketan? _____
Eta 17 pertsonak? _____ Zergatik? _____

- 8 lagunek lasterketa batean parte hartu nahi dute. Zer lasterketatan eman dezakete izena, taldeak osatu eta batere sobera geratu ez dadin? _____ lasterketan.
Eta 9 lagun badira, zer lasterketatan emango dute izena? _____ lasterketan.

➤ Erantzun galderei.

- Lasterketaz gain, saskibaloi-txapelketa bat ere antolatu dute auzoan. 12 laguneko talde batek izena eman nahi du.

- Talde bakoitzean 5 jokalar badira, denek jakatu al dezakete?

Eragiketak	Erantzuna

Zenbatek ezingo dute jakatu? _____ lagunek.

- Zenbat kidekoa izan beharko luke talde bakoitzak, lagun guztiek jokatzeko? _____ kidekoa.
Aukera bat baino gehiago al dago? _____
Idatzi bururatzen zaizkizun aukera guztiak. _____, _____, _____ edo _____ kidekoa.

Buruketa baten datuak ordenatzea

Buruketa arretaz irakurri eta datu bakoitza dagokion lekuan idatziko dugu. Ondoren, buruketa berrikusi eta idatzi egingo dugu.

Maiderek 4 piezako puzzle bat astebetean egin nahi du. Lehen 500 egunetan, pieza dezente jarri ditu, baina, oraindik, 200 pieza ditu jarri gabe.

Zenbat pieza jarri ditu orain arte?

➔ Buruketa irakurtzean, zenbait datu gaizki jarrita daudela ohartu gara. Aste batek ez ditu 500 egun, eta puzzlearen pieza kopuruak handiagoa izan behar du jarri gabe dauden piezen kopuruak baino.

Datuak ongi jarrita, buruketa honela geratzen da:

Maiderek 500 piezako puzzle bat astebetean egin nahi du.

Lehen 4 egunetan, pieza dezente jarri ditu, baina, oraindik, 200 pieza ditu jarri gabe. Zenbat pieza jarri ditu orain arte?

Ebatzi buruketa zure koadernoan.



Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

➤ Idatzi buruketa bakoitza, datuak leku egokian ipinita. Ondoren, ebatzi.

1. Oporretan, natura-erreserba batean, argazkiak atera nizkien 1.800 elefanteri eta hipopotamo bat gutxiagori. Elefanteak astunagoak dira hipopotamoak baino. Elefante bakoitzak 5 kg-ko pisua du, eta hipopotamo bakoitzak, 5.000 kg-koa. Zer pisu dute elefanteek eta hipopotamoek guztira?

Oporretan, natura-erreserba batean, argazkiak atera nizkien _____ elefanteri eta hipopotamo bat gutxiagori. Elefanteak astunagoak dira hipopotamoak baino. Elefante bakoitzak _____ kg-ko pisua du, eta hipopotamo bakoitzak, _____ kg-koa. Zer pisu dute elefanteek eta hipopotamoek guztira?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

2. Maider, Nerea eta Leire ahizpak dira. Maider 8 cm luze da, Nerea 110 cm baxuagoa da Maider baino, eta Leire, txikiena, 145 cm luze da. Zer alde dago ahizpa altuenaren eta baxuenaren artean?

Maider, Nerea eta Leire ahizpak dira. Maider _____ cm luze da, Nerea _____ cm baxuagoa da Maider baino, eta Leire, txikiena, _____ cm luze da. Zer alde dago ahizpa altuenaren eta baxuenaren artean?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

Berrikusketa

- Idatzi zer balio duen 8 zifrak zenbaki bakoltzean.

281	3.897	48.920
378	8.502	90.846
802	7.984	80.543

- Idatzi zifraz edo letraz.

Hogei mila berrehun eta hemeretzi.

Hirurogeita bost mila zortziehun eta bost.

9.508
35.309
18.076
4.580

- Kalkulatu koadernoan eta eman erantzuna.

$$4.234 + 3.643 = \quad 2.064 - 1.876 = \quad 30.321 - 9.485 =$$

- Egin biderketak koadernoan eta eman erantzuna.

$$543 \times 75 = \quad 4.805 \times 63 = \quad 7.236 \times 82 =$$

- Egin zatiketak koadernoan eta eman erantzuna.

$$48 : 6 = \quad 56 : 8 = \quad 81 : 9 =$$

- Kalkulatu.

18 Bikoitza -->

Erdia -->

24 Hirukoitza -->

Herena -->

- Irakurri eta kalkulatu.

- Zenbaki baten bikoitza 18 da. Zein zenbaki da?
- Zenbaki baten hirukoitza 24 da. Zein zenbaki da?

- Supermerkatu batean, 25 zaku dituzten 3 edukiontzi jaso dituzte. Zaku bakoltzak 5 kilo patata ditu. Zenbat kilo patata jaso dituzte?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Gaur, Naiararen urtebetetzea da, eta ospatzeko, lagun batzuk gonbidatu ditu jatetxe batean bazkaltzera. Zortzi lagunek 21 €-ko menu berezia eskatu dute, eta sei lagunek, 19 €-ko eguneko menua. Zenbat ordaindu du Naiarak guztira?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak